

Iñigo Ugena, kirolaria:

“Zaintzen ez bazara, markak ez dira agertuko”

Duela 4 urte hasi zen pertika-jauzia praktikatzen, eta 10 domina baino gehiago irabazi ditu. Duela gutxi, baina, bere garaipen goxoenetako bat lortu du Iñigo Ugena ermuarrak: Atletismo Federazioak ontzat eman dio abenduan lortutako errekorra.

- Zergatik eman dizute 4 metroko errekorra hain berandu? Zer gertatu da?

Errekorra oporretatik bueltan egin nuen eta IAAFk (Atletismoko Federazio Elkartea Internazionale) esaten du kadetetik jubenilera kategoria aldaketa ez dela abendura arte egiten. Errekorra abenduaren 23an egin nuen, eta Euskadiko Federazioa ez zen horretaz konturatu.

- Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen? Zergatik?

Zortzi urterekin hasi nintzen atletismoan, anaiak atletismoa egiten zuelako, baina pertika orain dela 4 urte egiten hasi nintzen oso dibertigarria iruditzen zitzaidalako.

- Zenbat sari jaso dituzu guztira? Euskal Herrikoak eta Espainiakoak?

10 domina baino gehiago ditut guztira. Espainiako hiru domina ditut: brontzezko bi eta zilarrezko bat. Eta Euskadiko txapelketako 8 domina ditut.

- Espainiako txapelketak oso gogorak izaten dira?

Beno. gogorak ez. Azkenean beste konpetizio bat da, baina urduri jartzen naiz eta horrek txapelketa zailtzen du.

- Fisikoa asko landu behar da?

Bai, fisiko egokia eduki behar da, azkenean zaintzen ez bazara markak ez dira agertuko.

- Nolakoak dira entrenamendu saioak? Bakarka?

Pertika egiten dudanean normalean entrenatzailea eta ni bakarrik egoten gara, baina besteetan entrena-



menduko taldearekin entrenatzen dut.

- Entrenatzaileen inguruan zerbait esateko?

Lehengo entrenatzailea Lolo izan zen eta berak atletismoko oinarriak erakutsi zizkidan. Pertika egiten hasi nintzenean beste entrenatzaile batekin entrenatzen nuen, Ortuellan. Orain Antonio Cidekin eta Naiara Larrearekin entrenatzen dut, Naiararekin pertika.

- Familia beti ondoan?

Bai, familia beti egon da hor, ahal duten konpetizio

guztietara joaten dira eta etxean beti lagundu egin didate momentu on eta txarretan.

- Zure bizitzako momentu onen bat gogoan duzu?

Bai, nire Espainiako lehenengo txapelketa. Gogoan dut konturatu gabe nire marka hobetu nuela eta bat-batean bakarrik hiru lehiakide gelditzen ginen. Nulo bategen erabaki zuen bigarren eta hirugarren postua, eta azkenean bigarren postua lortu nuen.

Amalia Arginzoniz



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379


SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI 
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA